



ETXAURIKO HIRI AGENDA

Etxauriko Udalak abian jarri du **Hiri Agenda** egiteko prozesua. Dokumentu estrategiko horrek udalerrriaren etorkizuneko jarduerak modu ordenatu eta partekatuan planifikatzea ahalbidetuko du.

Hiri Agenda tresna praktiko bat da, Udalari lehentasunak zehazten laguntzeko, epe labur, ertain eta luzerako ekintzak programatzeko eta finantzaketa publikoko etorkizuneko deialdietarako sarbidea errazteko pentsatua.

Horretarako, Udalak **Orekari Estudioren laguntza teknikoa du**, Etxauriko eskalara eta errealitateari egokitutako metodologia baten bidez, analisi teknikoa, landa-lana eta herritarren parte-hartzea uztartzen dituen.

Hiri Agendaren prestaketa Nafarroako Gobernuak kofinantzatzen du.

Zein da Etxauriko Hiri Agendaren helburua?

Prozesuaren helburu nagusia **Etxauriko Hiri Agenda** dokumentu estrategiko eta operatibo gisa prestatzea da, Udalari honako hauetarako erreferentzia gisa balioko diona:

- Epe labur, ertain eta luzerako jarduerak planifikatzea.
- Udal-inbertsioak eta -proiektuak lehenestea.
- Hiri-erabakiak ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-iraunkortasuneko irizpideekin koordinatzea.
- Udalaz gaindiko dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzen laguntzea.



Nola egingo da lan?

Prozesua elkarrekin lotutako faseetan egituratzen da, eta tresna teknikoak eta parte-hartzaileak konbinatzen ditu:

- Koordinazio- eta jarraipen-bilerak.
- Dokumentuak eta datuak aztertzea.
- Landa-lana eta analisisa, Hiri Agendaren ildoetan oinarrituta.
- Herritarrei irekitako tailerrak eta parte-hartze dinamikak.
- Talde fokalak, beharrezkoa denean gai zehatzetan sakontzeko.
- Emaitzak aurkezteko eta itzultzeko jardunaldia.

Etorkizunera begirako prozesua

Etxauriko Hiri Agenda jarraitzeko asmoz sortu da. Lehentasunak zehazteaz gain, prozesuari esker, udalerrria prestatu ahal izango da kanpoko baliabide ekonomikoak eskuratzeko, autonomikoak, estatukoak edo Europakoak, bai eta datozen urteetan proiektuak gauzatzen lagunduko duen esparru tekniko sendo bat izateko ere.